

FUTBOLA

Bayern Munichek
jokatuko du
Txapeladunen
Ligako finalaBAYERN MUNICH 2
REAL MADRID 1

Bayer Munich: Kahn; Sagnol, Kuffour, Andersson, Linke, Lizarazu; Salihamidzic, Jaramies (Sforza, 70. m.), Hargreaves; Scholl (Santa Cruz, 60. m.) eta Elber (Zickler, 86. m.).

Real Madrid: Casillas; Salgado, Hierro, Karanka (Morientes, 66. m.), Roberto Carlos; Figo, Helguera, Makelele, McManaman (Savio, 61. m.); Raul eta Guti.

Golak: 1-0: Elber (7. m.).

1-1: Figo (18. m.). 2-1: Jeremies (34. m.).

Epailea: Kim N. Nielsen. Txartel horiak Bayerneko Jeremies (21. m.) eta Sforza (73. m.); eta Real Madrileko Helguera (11. m.), Hierro (50. m.) eta Guti (73. m.).

Erredakzioa | DONOSTIA

Joaneko partiduan lortutako aldeari eustez gain, Bayernek bi gol sartu zituen atzo Real Madrili, eta modu horretan maiatzaren 23an Milanen egongo dela ziurtatu zuen. Bayern Munichek eta Valentziak jokatuko dute Txapeladunen Ligako partidua.

Taldearen sendotasunera jo zuen Bayernek atzo Real Madrid menperatzeko. Kanporaketa bere alde izan arren, Bayern ez zen emaitza ziurtatzera zelairatu, eta lehen minututik Iker Casillasek adi egon behar izan zuen, Schollen jaurtiketa batengatik. Real Madrid galduta egon zen partidua hasieran, eta Elberrek zortzigarren minutuan arean egondako nahaste batez baliatu zen lehenengoa sartzeko. Madrildarrak, ordea, ez zuten etsi eta, Raul eta Figoren arteko jokoaren ondorioz, portugaldarrak berdindu egin zuen partidua.

Hala ere, Jeremiesek alemaniarren hurrengo erasoko jokaldian kanporaketa erabakita utzi zuen ia, 2-1eko eginez. Gero, bigarren zatian Bayern atzerago sartu zen, eta Real Madrilek presionatu bazuen ere, alemaniarrek partidua kontrolatu eta espainiarren nahi eta ezina menderatu zuten.

ATLETISMOA. Gaitza ikusteko modu bakarrak gaixoari egindako biopsia eta autopsia dira

Diego Garcia ia antzeman ezin daitekeen gaixotasunak jota hil zen

Azkoitiarrak bi bentrikulutako miokardiopatia arritmogenikoa zuela dio Azpeitiko forentseak

Andoni Urbistondo | DONOSTIA

Diego Garcia korrikalari azkoitiarra bi bentrikulutako miokardiopatia arritmogeniko baten ondorioz zendu zen. Hala dio Madrilgo (Espainia) Toxikologia Institutu Nazionalak Azpeitiko Epaitegira igorritako txostenean. Korrikalaria pasa den martxoaren 31n hil zen, Alejandro Gomez atleta eta lagunarekin Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia prestatzeko entrenatzen ari zela.

Gipuzkoako Poliklinikoko Javier Montes kardiologoaren esanetan, «egun antzemandena da ia» miokardiopatia gaitza. «Norbaitek bat-batean hiltzean aurkitzen da gaitz hori. Horrek Diego Garcia hiltzeko arrazoia infarto ez zela izan frogatzen du», esan dio EGUNKARIARI Montese. Miokardiopatia topatzeko modu bakarra erresonantzia magnetiko nuklearra da, antza. Erresonantzia horretan eskuin bentrikuluan argiune bat ikusiko litzateke, pertsonak miokardiopatia balu.

Biopsiak eta autopsiak

Erresonantzia kasu bakanetan egin ohi da, gaixoaren familian aurrekariak direnean bakarrik. Montes kardiologoa ez da ados: «Erresonantzi nuklearra ez da erabat segurua. Miokardiopatia aurkitzeko modu bi daude: Biopsia eta autopsia. Biopsia, minbizi kasuak aurkitzeko egiten den zuntz azterketa da, eta oso-oso gutxitan egiten da bihotzeko zuntzetan; eta autopsia, berriz, gizasemea hil eta gero egiten da», kardiologoaren arabera.

ONDORIOAK

Sendia, jakinaren gainean

Litekeena da miokardiopatia sortzetiko, herentziazko gaitza izatea. Korrikalari azkoitiarraren heriotza aztertu duten arduradunek jakinaren gainean jarri dute atletaren sendia, eta kideren batek miokardiopatiaren bat duten edo ez jakiteko eta arriskuak saihesteko modu egokiena azterketa sakon bat egitea dela jakinarazi diete. Azterketen ostean Diego Garcia senitartekoren batek miokardiopatia duela ikusiko balitz, gaitz horren jatorria sortzetikoa dela egiaztatuko litzateke. Hala balitz, posible litzateke Diego Garcia jaiotzetik izatea gaixotasun hori, Azpeitiko Lourdes Goenaga auzitegi medikuaren hitzetan, egin dizkieten azterketa guztietan arrastorik aurkitu ez badiote ere. «Gaztetan txikia litzateke miokardiopatia, baina urteekin, asko garatu da».

ESANAK

JAVIER MONTES

(Gipuzkoako Poliklinikoko kardiologoa)


«Miokardiopatia aurkitzeko bi modu seguru daude bakarrik: Biopsia eta autopsia»

«Miokardiopatiak ez du patologiarik. Erraza da azterketetan oharkabean geratzea»

«Konortea galdu, disneak eta arritmiak dira sintomak, baina edonork jasaten ditugu horiek noizbait»

«Ez du badaezpadako erremediorik. Ezin da nola-hala desfibriladore bat jarri»

Montesen ahotan, «konplexua da benetan miokardiopatia aurkitzea, ez baitu patologiarik erakusten. Erraza da azterketa orotan oharkabean geratzea». Sintomen inguruan, «lantzean behin konortea galtzen da, eta disneak eta arritmiak izaten dira, baina horiek, arritmiak batetik bat, edonork izaten ditugu», dio Montese. Badaezpadako erremedioa, «desfibriladorea jartzea», ez da posible, «horrelako tresna ipintzea ez baita inolanhiko erabakia».



DONG-A ILBO / EFE
Diego Garcia, Seulgo maratoian bigarren postuan helmugaratzen.



SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Igandea, maiatzak 13, 18:00etan

Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB - REAL VALLADOLID

TXARTEL SALMENTA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES STADIUMean ostiralean, 17:30etatik 20:00etara, larunbatean, 10:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 20:00etara, igandean, 10:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik aurrera.

Athletic Club - Valladolid partidarako sarrerak BBKren autozerbitzuko kutxazainetan eskuratu ahaliko dira.

Zerbitzu hori doako da, eta finantzia txartela duten erabiltzaile guztiek baliatu ahaliko dute, maiatzaren 11etik aurrera, eguneko 24 ordutan.



Coche Oficial del
Athletic Club

